



UDAL BATZAR ARRUNTA
2015eko abenduaren 17a

LEKUA: Udaletxeko Batzar Aretoa.

LEHENDAKARIA: Ioritz Imaz Baztarrika jn.

ZINEGOTZIAK:

Montserrat Delgado Aguirre and.

Erkuden Murua Uribe-Etxebarria and.

Rufino Insausti Eciolaza jn.

Aitzol Mendizabal Malkorra jn.

Aloña Barandiaran Munduate and.

Aritz Ugarte Munduate jn.

Andoni Gomez Aldanondo jn.

Argoitz Urrestaratzu Lazkano jn.

Aratz Urkia Telleria jn.

Igor Ariztimuño Iparraguirre jn.

Etorri ez direnak: Inor ez.

IDAZKARIA: Aitor Iñarra González Jn.

BATZARRA: Arrunta. DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: Arratsaldeko 18:30etan. Amaiera: 20:00

GAI-ZERRENDA

- 1.- Azken Batzarreko agiriaren onespena: 2015-11-26koa. Eta 2015-10-29ko udalbatzaren aktaren akats zuzenketa.**
- 2.- Alkatetzako Dekretu eta Erabakien berri ematea: 305-323.**
- 3.- 2016. urteko Aurrekontu Orokorra onartzea.**
- 4.- 2016. urteko udal lan egutegia eta bulegoetako ordutegia onartzea.**
- 5.- Eguneko zentroko eta etxeko zerbitzuko kontratua esleitzea.**
- 6.- 2014. urteko Kontu Orokorra onartzea.**
- 7.- 2015-04 Kreditu Aldaketa.**
- 8.- 2015. urteko udal tasen itzulketa.**
- 9.- Garapen bidean dauden herrialdeei dirulaguntza.**
- 10.- Galdera eta eskaerak.**



GAIAK

1.- Azken Batzarreko agiriaren onspena: 2015-11-26koa. Eta 2015-10-29ko udalbatzaren aktaren akats zuzenketa.

Gaia eztabaidatu ondoren 2015eko azaroaren 26ko akta ahobatez onartuta gelditzen da.

Eta 2015eko urriaren 29ko aktan honako zuzenketa sartzea erabakitzen da ahobatez:

1) Ibilgailuen gaineko zergan honako aldaketa jasotzea:

Art. 2. HOBARIAK, puntu 2 a) letra, bigarren paragrafoa honako idazkera izango du:

25 urtetik gorako antzinasuneko exentzioa interesatuak eskatuta aplikatuko da, eta bere efektuak eskaera urtetik zenbatuko dira.

2) Karabanen aparkalekuko tasetan:

Aktak 40 euro jartzen du, baina 42 jarri behar zuen.

Aritzek Ugarte jaunak esaten du futbol zelaiko alokairua egiteko prezio bat jarri behar dela. Gaia eztabaidatzen da eta adosten da hitzarmen bat sinatuko dela kirol elkartearekin eta bertan kopuruak finkatuko direla.

2.- Alkatetzako Dekretu eta Erabakien berri ematea: 305-323.

Azken udalbatzatik hona emandako Alkatetza Ebazpenen zerrenda zinegotzi guztiei banatuak daudelarik (305-323 zenbakidunak), Udalbatza Osoko zinegotziak ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen dira.

3.- 2016. urteko Aurrekontu Orokorra onartzea.

Alkate jaunak azaltzen du hainbat ogasun eta beste batzordetatik pasa dela gai hau. Azken momentuko aldaketa txiki bat sartu behar izan dela eta horri buruzko azalpenak ematen ditu. Barandiaran andereak informazioa eskatzen du aurreko urtean Kirol Elkartei dirulaguntza nola eman zitzaien, eta horri erantzuteko Igor Iparragirrek



informazioa ematen du. Informazio gehiago ematen jarraitzen du alkateak Barandiaran andereak honela eskatuta.

Herritarren bizikidetza sustapeneko partidan ere bi dirulaguntza sartzen dira (bata Aranzadi: Gerrate zibilako hilketak direla eta ikerketa bat egiteko proiektua ordaintzeko; hainbat urtetako proiektu bat izango da. Eta bestea Baketik).

Kultur taldeen dirulaguntzetan ere ere aldaketa gutxi dagoela alzatzen du alkateak. Barandiaran andereak informazio gehiago eskatzen du honi buruz, eta azalpenak ematen dira aurrekontuko transferentzi eranskina erabiliz.

Euskarako dirulaguntzei buruz ere azalpenak ematen ditu alkate jaunak, eta horretaz gain beste dirulaguntzak ere erreparatu egiten ditu.

Ugarte jaunak udaletxe atzeko partzelari buruzko informazioa eskatzen du, eta alkate jaunak azalpenak ematen ditu.

Hirigintza aholkularitzari buruz ere informazioa eskatzen du, esanez ordainsari bezala kopuru finko bat jarri beharko litzatekeela. Alkate jaunak azaltzen du agian ona litzatekeela kopuru fijo hori jarzea, baina oraingoz aurrekontuan lehengo urteko kopuru berdina jarri dela eranstean du, eta aztertu beharko da kontratua datorren urterako.

Aritz Ugartek jaunak ere argiteriari buruzko informazioa eskatzen du. Jarraian baita ere galdetzen du nondik atera den Interpretazio zentro berrirako partidaren kopurua, eta Alakte jaunak azaltzen du partida horretan sobera zegoen kreditoa jarri dela.

Ugarte jaunak ere galdetzen du Idazkaritzako kudeaketari buruzko beste partida bati buruz, eta azalpenak ematen dira honi buruz.

Horretaz gain aldaketa handirik ez dagoela azaltzen du alkate jaunak.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozketara jartzen da honako emaitzarekin, aldeko botoak zazpi: Ioritz Imaz Baztarrika jn., Montserrat Delgado Aguirre and., Erkuden



Murua Uribe-Etxebarria and., Rufino Insausti Eciolaza jn., Aitzol Mendizabal Malkorra jn., Igor Ariztimuño Iparragirre jn. eta Andoni Gomez Aldanondo jn.

Aurkako botoak lau: Aloña Barandiaran Munduate and., Aritz Ugarte Munduate jn. Argoitz Urrestaratzu Lazkano jn. eta Aratz Urkia Telleria jauna.

Hori dela eta gehiengoz udalbatzak honakoa

ERABAKITZEN DU

1.- Hasierako onarpena ematea 2015eko Aurrekontu Orokorrari zeinek bere barne dituen Udalaren Aurrekontu Propioa eta Udalaren jabetzakoa den Guardi,Gain, S.A.rena. Kapitulukako erresumenak ondorengoak dira:

UDALAREN AURREKONTU PROPIOA

SARRERAK		
KAP.	IZENDAPENA	€uroak
1	Zuzeneko zergak	893.000
2	Zeharkako zergak	25.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	488.741
4	Transferentzi arruntak	1.771.711
5	Ondarezko sarrerak	3.001
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0
7	Kapital transferentziak	16.000
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA		3.197.453

GASTUAK		
KAP.	IZENDAKETA	€uroak
1	Pertsonalaren gastuak	670.719
2	Onds.arrunt.zerb.erosketak	1.740.827
3	Finantz gastuak	13.000
4	Transferentzi arruntak	322.154
6	Inbertsio errealak	385.753
7	Kapital transferentziak	0
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	65.000
GUZTIRA		3.197.453



GOARDI GAIN S.A.-REN AURREKONTUA

2016ko GUARDI GAIN, S.A-REN AURREKONTUA		
SARRERAK		
KAP.	IZENDAPENA	Euroak
1	Zuzeneko zergak	0
2	Zeharkako zergak	0
3	Tasak eta bestelako sarrerak	0
4	Transferentzi arruntak	0
5	Ondarezko sarrerak	1.000
	Inbertsio errealen	
6	besterenganaketa	700.000
7	Kapital transferentziak	0
8	Finantza aktiboak	
9	Finantza pasiboak	0
	GUZTIRA	701.000
GASTUAK		
KAP.	IZENDAKETA	Euroak
1	Pertsonalaren gastuak	
2	Onds.arrunt.zerb.erosketak	38.915
3	Finantz gastuak	0
4	Transferentzi arruntak	
6	Inbertsio errealak	145.000
7	Kapital transferentziak	0
8	Finantza aktiboak	517.085
9	Finantza pasiboak	0
	GUZTIRA	701.000

2.- Espedientearen barnean dihoazen ondoko dokumentuei behin behineko onarpena ematea:

- a) - Udalaren Plantila Organikoa: 1 Eranskina
- b) - Udalaren lanpostu zerrenda: 2 Eranskina

Aurrekontuaren partidatan islatu den bezala, eta Plantila Organikoan bat etorriaz, udal lanpostu guztiei % 3,5eko igoera onartzen da.

3.- GAO-an publikatzea hasierako onarpenaren iragarkia. Indarrean dagoen legediak diotenaren arabera, akordio hau behin-betikoa bilakatuko da jendeaurrean erakutsirik egongo den epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada.



4.- 2016. urteko udal lan egutegia eta bulegoetako ordutegia onartzea.

Leihatilako ordutegiari dagokionez Alkate jaunak azaltzen du batetik udalaren proposamena zein izan den eta bestetik langileek zer proposatu duten.

Barandiaran andereak azaltzen du udal langileek proposatzen duten leihatila ordutegia nahiko murrizta dela, izan ere lehen astean hainbat egunetan arratsaldetan ere leihatila irekita egoten zen, eta orain ez. Beste zinegotziak ados daude ikuspegi honekin. Ordutegi praktikoago bat jarri beharko litzatekeela esaten da eztabaidan. Bertaratuen ustez udalak malgutasun handia ematen die udal langileei beraien sarrera zen irteera orduak ezartzeko garaian (hau da, ez finkatuz lanera sartzeko eta irteteko ordutegi zehatz bat).

Gaia modu zabal batean eztabaidatzen da eta bertaratutako guztiak ados azaltzen dira goian aipatutakoarekin, hortaz Udalbatzak ahobatez honakoa

ERABAKITZEN DU

BAT,

Udal bulegoetako leihatila orduak honakoak izango dira:

Urte osoan zehar:

Astelehenetik ostegunera 8:30-tatik 16:00ak arte

Ostiraletan 8:30-tatik 15:00ak arte.

Uztaila eta abuztuan eta Paskua astea (Aste Santuaren ondorengo astea),

Aste osoan zehar 8:30-tatik 14:00-ak arte.

Abuztuan zehar gutxienez bi aste opor hartu beharko dituzte administrariak.

BI,

Leihatila ordutegia iragartzea: udaletxean ordutegia jarriz, Plazara aldizkarian argitara emanez eta ahal den publizitate gehiena herri mailan emanez.



HIRU,
Udaleko lanegun egutegia onartzea (3. Eranskina)

5.- Eguneko zentroko eta etxez etxeko zerbitzuko kontratua esleitzea.

2015eko azaroaren 23an kontratazio mahaia elkartu zen Eguneko zentroaren eta etxez etxeko zerbitzuaren kontratuan aurkeztutako bi lizitatzailleen balorazioa eta esleipen proposamena egiteko. Bi lizitatzailleak Laugara eta Goxara ziren.

Esleipenerako irizpideak bi motatakoak ziren, automatikoak eta balorazio bat behar zutenak. Automatikoak aldi berean beste bi ziren: proposamen ekonomikoa eta esperientzia. Eta balorazioa behar zutenak ere bi ziren: Jaruera Proiektua eta Giza baliabideen proiektua. Azken bi irizpideak modu egokian baloratzeko adituen mahai bat osatu zen eta txosten teknikoa igorri zuten. Adituen mahaia honela zegoen osotuta: Gizarte laguntzailea, gizarte zinegotzia, Idazkaria eta Alkatea.

Hori guztia kontutan izanda kontratazio mahaia balorazioa egin zuen honako emaitzarekin:

A) Proposamen Teknikoen:

	Laugara	Goxara
1.- Metodologia eta jarduera proiektua: 10 puntu	10	4.5
2.- Giza baliabideen kudeaketarako proiektua: 10 puntu	10	7
3.- Esperientzia:	5	5
Guztira	25	16.5

B) Proposamen ekonomikoa:

Goxara: oinarriko prezioetatik zentimo bat jaitsi dute balore guztietan.

Laugara: oinarrizko prezioak proposatu dituzte.

Pleguen arabera proposamen ekonomikoak 5 puntu balio ditu. Hori horrela honako puntuazio banaketa proposatzen da:

Goxara: 5 puntu



Laugara: 0 puntu

C) Balorazioa guztira:

	Goxara	Laugara
1.- Metodologia eta jarduera proiektua: 10 puntu	4.5	10
2.- Giza baliabideen kudeaketarako proiektua: 10 puntu	7	10
3.- Experiencia:	5	5
4.- Proposamen ekonomikoa: 5 puntu.	5	0
Guztira	21.5	25

Goian aipatutako guztia eta bai alkate jaunak zein kontratazio mahaian zeuden zinegotziek entzundako azalpenak eta gero, udalbatzak aho batez honakoa

ERABAKITZEN DU

Lehena. Laugara enpresaren aldeko esleipena egitea Eguneko Zentroa kudeatzeko eta etxez etxeko zerbitzua emateko.

Prezioa: Arau administratiboen plegutan jasotakoa.

Iraupena: bi urte, luzagarria beste bi urtez.

Bigarrena. Interesatuei erabaki honen berri ematea.

Hirugarren. Berma definitiboa ezarri ondoren, eta dagozkion beste izapideak martxan jarri eta gero, kontratua sinatzea Laugara enpresarekin.

6.- 2014. urteko Kontu Orokorra onartzea.

2014 ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra aurkezten da, zein ondorengo dokumentuek osatzen duten:

- 2014ko Udal Aurrekontuaren likidazioa.
- Ondorengoak dituen dokumentu osagarria: Finantzaketa Taula, Galera eta Irabazien Kontua, Egoera Balantzea, Epealdiko mugimenduak, Altxortegi gerakina, Aurrekontuz kanpoko zordun eta hartzekodunen egoera eta finantza afektaturik ez dagoenari buruzko ziurtagiria.
- Udal Ogasun zerrendaren balorazioa 2014ko abenduaren 31an.
- 2014ko Guardi Gain, S.A.ren kontuak.



Kontutan izanik aipatu espedientea jendeaurrean erakutsirik egon dela, Udaleko Kontu Batzorde Bereziak aldeko txostena eman ondoren, eta indarreko legedioak eskatzen duenaren arabera izapidatua izan dela.

Gaia eztabaidatu ondoren Udalbatzak ahobatez honakoa

ERABAKITZEN DU

Bakarra: Onartutzat ematea 2014ko Udal Aurrekontuari dagokion Kontu Orokorraren espedientea.

7.- 2015-04 Kreditu Aldaketa.

Alkate jaunak azaltzen du hainbat partidatan ez zegoela nahikoa kreditu eta hau ohikoa dela urte bukaeran. Aldaketa batzuk egin behar izaten dira urte bukaera aldera eta horretarako kreditu aldaketa hau proposatzen da. Gaiak Ogasun batzordearen aldeko iritzia jaso zuen. Kopuru baxua dela eta honako kreditu aldaketa alkatearen eskuduntza da, eta hortaz dekretuz onartu beharrekoa. Hala ere Udalbatzaren oniritzia jarri da mahai gainean.

Gaia eztabaidatu ondoren Udalbatzak ahobatez honakoa

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- On iritzia ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	44.100,00
6	INBERTSIO ERREALAK	23.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		67.100,00



FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
6 (GASTUAK)	INBERTSIO ERREALAK	(-)44.100,00
7 (SARRERAK)	KAPITAL TRANSFERENZIAK	23.000,00
GUZTIRA		67.100,00

8.- 2015. urteko udal tasen itzulketa.

Andoni Gomez-ek informazioa ematen du Gizarte laguntzaileak prestatutako dokumentazioaren gainean. Bueltatu beharreko tasen kopurua 2.768,05 Euro dira 11 pertsonen artean. Konfidentzialtasuna mantentzearen beraien ezen abizenak ez dira azaltzen. Hala ere informazio guztia detailearekin Gizarte Zerbitzuetako teknikaria eta zinegotziak dute.

Gaia eztabaidatu ondoren Udalbatzak ahobatez honakoa

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Onartzea tasen itzulketa 2.768,05 Euroetan.

9.- Garapen bidean dauden herrialdeei dirulaguntza.

Andoni Gomez zinegotziak azaltzen ditu garapen bidean dauden herrialdeen dirulaguntzak, esanez aurten berri bat dagoela: Afrikarekin elkartasuna. Dirulaguntza hauek herrialde horietara bidaliko den dirua da.

Barandiaran andereak proiektu hauen jarraipena nola egiten den galdetzen du. Alkate jaunak, memoria bat egiten dutela adierazten du eta argazkiak bidaltzen dituztela.

Gaia eztabaidatu ondoren Udalbatzak ahobatez honakoa



ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Garapen bidean dauden herrialdeen dirulaguntzak onartzea 29.640 eurotan. (Detailea 4. eranskinean).

10.- Galdera eta eskaerak.

10.1. Pilarrenea: Barandiaran andereak informazio eskatzen du ea besteren batek hartuko duen. Alkate jaunak seguraski lehiaketa bat atera beharko da, eta hori begiratzen ari gara. Idazkari jaunak azalpenak emate ditu. Alkate jaunak bere iritzi bat ematen du. Barandiaran andereak esaten du agian hoberena orain berriz ateratzea dela, ikusirik badagoela jendea interesatua dagoela. Hori berriz ere esku artean hartu beharko genuke. Zerbitzu kontratua martxan jarri beharko litzateke, 6 urtetakoa. Baita ere jarraitu begiratzen kontzesioa emateko aukera.

Eta beste gairik ez dagoenez Batzarra bukatutzat ematen da gaueko 20:45ak direnean.



1. ERANSKINA

2016 urterako plantila organikoa

Plantilla orgánica para el año 2016

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAKO GORDETAKO LANPOSTUAK.

PLAZAS RESERVADAS A FUNCIONARIOS DE CARRERA.

<i>Lanpostuaren izena</i>	<i>La np. ko p.</i>	<i>T.6/89 L. 43. art.</i>	<i>Ego era</i>	<i>Denominación de plaza.</i>	<i>de la N° de plazas</i>	<i>de Grupo art. 43 L6/89</i>	<i>Situación</i>
NAZIONALEKO GAIKUNTZAKO ESKALA.				ESCALA DE HABILITACIÓN NACIONAL.			
Idazkaritza-Kontuhartzileko azpieskala Idazkari-Kontuhartzaile.....	1	A1	H	Subescala de Secretaría Secretario-Interventor.....	1	A1	V
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA				ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL			
Administrari azpieskala Admin. Orokorreko Administr...	3	C1	J	Subescala Administrativa Administ. Adminis. General.....	3	C1	P
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA				ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL			
Zerbitzu Bereziako azpieskala				Subescala de Servicios Especiales			
Klasea: Ofizioetako pertsonala Zeregin anitzetako langilea	1		C2	Clase: Personal de Oficios. Trabaj. cometidos múltiples.....	1		C2
J				P			
Klasea: Udaltzain laguntzailea Alguazil-operarioa	1		C2	Clase: Policía Munc. y Auxiliares. Alguacil-operario.....	1		C2
J				P			
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA				ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL			
Azpieskala: Teknikoa. Erdi mailakoa				Subescala: Técnica. Técnico medio			
Kultur teknikari-dinamizatzailea:.	1		A2	Técnico-dinamizador de cultura:	1		A2
J				P			

PERTSONAL LABORALENTZAKO GORDETAKO LANPOSTUAK.

PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL.

LANPOSTUAREN IZENA	La np. Ko p.	Kat. Prof es.	Asi mil. Tald ea	Ego era	Oh ar.	DENOMINACION	N° de puestos	Cat. de Profes.	Grupo Asimil.	Situación	Observaciones
Garbitzaileak	4	10	E	J	%100	Traba. Limpi.....	4	10	E	F	100%
Gizarte-Langilea	1	5	A2	J	%85	Asisten.Social	1	5	A2	F	85%
Liburutegiko Ardurad	1	5	C2	J	%50	Resp.Bibliote.	1	5	C2	F	50%



2. ERANSKINA

**2016eko LANPOSTUEN
ZERRENDA**

**Relación de Puestos de Trabajo –
2016**

Ordena zenbakia Nº de orden	Izena Denominación	Taldea - Grupo	Lanpostu kopurua Nº de puestos	Lanpostu mota Tipo de puesto	Hornitzeko era. Forma de provisión Enpresako Nibela - Nivel	Ordainketa osagarriak		Dedikazioa. % Dedicación. %	Bulegoa Dependencia	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					
						Retribuciones complemen.				Requisitos exigidos para su desempeño					
						Destinu osagarriaren malla. Dekretua Nivel complemento destino. Decreto.	Osagarri Espezifiko Complemento específico			Adskripzioa Adscripción		Hizkuntz eskakizuna Perfil lingüístico			Exijitutako titulazioa Titulación exigida
aldea	Azpieskala Subescala	Klasea Clase	Koefizientea Coeficiente	Derrigortasun Data	Fecra Preceptividad										

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK:

1.	Idzk./Kont	A1	1	S	C	22	26	20.574	100	Idaz.	HN	IK	3	4	92-02-27	LIZ.
2.	AD. Orkor. Administra	C1	1	N	--	14	17	18.473	100	Idaz.	AO	AA	--	3	92-02-27	GB+ 2
3.	AD. Orkor. Administra	C1	1	N	--	14	17	18.473	100	Idaz.	AO	AL.	--	3	93-06-30	GB+ 2
4.	AD. Orkor. Administra	C1	1	N	--	14	17	18.473	100	Idaz.	AO	AL.	--	3	01-08-01	GB+ 2
5.	Zeregin Antiz. Lang.	C2	1	N	--	12	16	17.384	100	O.B.	AB	Z.B	--	1	92-12-31	EG
6.	Alguazil-Operarioa	C2	1	N	--	10	14	15.407	100	Idaz.	AB	Z.B	--	2	91-02-28	EG
7.	Kultur teknikari- dinam.	A2	1	ES	C	15	17	16.821	100	Kult.	AB	TE.		3	12-05-01	DIP.

PUESTOS RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA:

1.	Secret./Intervención	A1	1	S	C	22	26	20.574	100	Secr.	HN	SI	3	4	92-02-27	LIC.
2.	Administ. Adm. General	C1	1	N	--	13	17	18.473	100	Secr.	AG	AA	--	3	92-02-27	BS+2
3.	Administ. Adm. General	C1	1	N	--	13	17	18.473	100	Secr.	AG	AA	--	3	93-06-30	BS+2
4.	Administ. Adm. General	C1	1	N	--	13	17	18.473	100	Secr.	AG	AA	--	3	01-08-01	BS+2
5.	Trabajador servicios m.	C2	1	N	--	12	16	17.384	100	O.B.	AE	S.E	--	1	92-12-31	GE
6.	Alguacil-Operarioa	C2	1	N	--	10	14	15.407	100	Secr.	AE	S.E	--	2	91-02-28	GE
7.	Técnico-dinamiz. cultur	A2	1	ES	C	15	17	16.821	100	Cult.	AE	TE.		3	12-05-1	DIP.



2016eko LANPOSTUEN ZERRENDA

Relación de Puestos de Trabajo – 2016

Ordina zenbakia Nº de orden	Izena Denominación	Taldea - Grupo	Lanpostu kopurua Nº de puestos	Lanpostu mota Tipo de puesto	Hornitzeko era. Forma de provisión	Enpresako Nibela - Nivel	Ordainketa osagarriak		Dedikazioa. % Dedicación. %	Bulegoa Dependencia	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					
							Retribuciones complemen.				Requisitos exigidos para su desempeño					
							Destinu osagarriaren maila. Dekretua Nivel complemento destino. Decreto.	Osagarri Espezifiko Complemento específico			Adskripzioa Adscripción		Hizkuntz eskakizuna Perfil lingüístico			Exijitutako titulazioa Titulación exigida
aldea	Azpieskala Subescala	Klasa Clase	Koefizientea Coeficiente	Derrigorotasun Data Fecha	Preceptibitatea Preceptividad											

LAN PERTSONAL FINKOARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK:

1.	Garbitzailea	E	1	N	--	8	12	14.033	100	BB.	AB	ZB	--	2	94-12-31	EZ.
2.	Garbitzailea	E	1	N	--	8	12	14.033	100	OB.	AO	ZB	--	1	91-02-28	EZ
3.	Garbitzailea	E	1	N	--	8	12	14.033	100	OB.	AO	ZB	--	1		EZ
4.	Garbitzailea	E	1	N	--	8	12	14.033	100	OB.	AO	ZB	--	1		EZ
5.	Gizarte langilea (1)	A2	1	N	--	15	17	14.298	85%	BB.	AB	ZB	--	3	92-06-30	AS
6.	Liburutegiko ardur. (1)	C2	1	N	--	8	16	5.903	50%	KA.	AB	ZB	--	2	93-06-30	EG

PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL FIJO:

1.	Garbitzailea	E	1	N	--	8	12	14.033	100	BB.	AB	ZB	--	2	94-12-31	EZ.
2.	Garbitzailea	E	1	N	--	8	12	14.033	100	OB.	AO	ZB	--	1	91-02-28	EZ
3.	Garbitzailea	E	1	N	--	8	12	14.033	100	OB.	AO	ZB	--	1		EZ
4.	Garbitzailea	E	1	N	--	8	12	14.033	100	OB.	AO	ZB	--	1		EZ
5.	Gizarte langilea (1)	A2	1	N	--	15	17	14.298	85%	BB.	AB	ZB	--	3	92-06-30	AS
6.	Liburutegiko ardur. (1)	C2	1	N	--	8	16	5.903	50%	KA.	AB	ZB	--	2	93-06-30	EG

Udal honetan UDALHITZ hitzarmena aplikatzen denez, plantila organikoak lanpostu bakoitzari ezarritako mailari hitzarmen horrek izendatutako ordainsariak izango dira langile hauek kontzeptu guztiengatik jasoko dituztenak, era honetan banatuak:

- Oinarritzko soldata: Lanpostuari izendatutako taldeari legeak ezartzen dioena.
- Destinu Osagarria: Lanpostuari izendatutako mailari legeak ezartzen dioena.
- Osagarri Espezifiko: Aurreko bi kontzeptuek batuta ateratzen den kopurutik, plantila organikoak lanpostuari izendatutako mailari UDALHITZak ezarritako ordainsari guztia osatu arteko aldea.
- Koadro hauetako kopuruak 2011 urtekoak dira.

Lan izaerako langileria dagokionean, plantila organikoak lanpostuari izendatutako mailari UDALHITZak ezarritako ordainsariak aplikatuko dira.

(1) Lanpostu hauek iraungitzeak dira eta mugagabe lan izaerako kontratupean dauden 2 langilek dute jabetzan.

(2) Kale garbiketarako peoia postua amortizatu egiten da eta desagertzen da. Lanpostu hau ez zen inoiz bete eta hortaz hutsik zegoen.

Aplicándose en este Ayuntamiento el convenio UDALHITZ, las percepciones por todos los conceptos que recibirá cada trabajador serán de acuerdo con el nivel establecido para cada puesto que fija dicho convenio y cuyo detalle será el siguiente:

- Salario base: Según el Grupo al que pertenece cada puesto, conforme a lo establecido en la legislación vigente.
- Complemento de Destino: Según el nivel establecido a cada puesto, conforme a la legislación vigente.
- Complemento específico: La diferencia de la cuantía prevista en el convenio UDALHITZ, y los dos conceptos anteriores de acuerdo al nivel establecido en la Plantilla Orgánica..
- Las cuantías de estos cuadros son las correspondientes a 2011.

En los puestos de trabajo reservados a personal laboral, las cuantías previstas en el convenio UDALHITZ según los niveles establecidos en la Plantilla Orgánica.

(1) Estos puestos de trabajo son a extinguir y están ocupados por dos trabajadoras con contrato laboral indefinido.

(2) El puesto de Peón se amortiza y desaparece. Este puesto nunca se llegó a proveer y por tanto estaba vacante.



3. ERANSKINA

2016. URTEKO LAN EGUTEGIA

2016	URTARRIL	OTSAILA	MARTXOA	APRILA	MAIATZA	ESKUA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4
5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5
6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6
7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7
8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8
9	9	9	9	9	9	9	9	9	9	9	9	9
10	10	10	10	10	10	10	10	10	10	10	10	10
11	11	11	11	11	11	11	11	11	11	11	11	11
12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12
13	13	13	13	13	13	13	13	13	13	13	13	13
14	14	14	14	14	14	14	14	14	14	14	14	14
15	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15
16	16	16	16	16	16	16	16	16	16	16	16	16
17	17	17	17	17	17	17	17	17	17	17	17	17
18	18	18	18	18	18	18	18	18	18	18	18	18
19	19	19	19	19	19	19	19	19	19	19	19	19
20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20
21	21	21	21	21	21	21	21	21	21	21	21	21
22	22	22	22	22	22	22	22	22	22	22	22	22
23	23	23	23	23	23	23	23	23	23	23	23	23
24	24	24	24	24	24	24	24	24	24	24	24	24
25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25
26	26	26	26	26	26	26	26	26	26	26	26	26
27	27	27	27	27	27	27	27	27	27	27	27	27
28	28	28	28	28	28	28	28	28	28	28	28	28
29	29	29	29	29	29	29	29	29	29	29	29	29
30	30	30	30	30	30	30	30	30	30	30	30	30
31	31	31	31	31	31	31	31	31	31	31	31	31



4. ERANSKINA



Idiazabalgo Udala
(GIPUZKOA)

Gizarte Zerbitzu Batzordeak, abenduaren 2an bilduta, zera proposatzen du:

GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI DIRULAGUNTZAK. 2015

Eskatzailea	Proiektuaren izena	Eskaera	Kontu zenbakia	PROPOSAMENA
ONDUZ FUNDAZIOA AYUO	Herramientas y máquina industrial del colegio de formación profesional.... (Colombia)	67.500€	3035 0199 05 1990014390	9.820€
KASONGO LUNDA GKE	Popokabaka eskualdeko ganadertzairen garapena. Congo	9.000€	2095 5044 38 1062740419	5.000€
TXIRRINDULARI PROIEKTU SOLIDARIOA	Afrikarekin elkartasun proiektu solidarioa. Etiopia			9.820€
FUNDACION BEN-POSTA ZULIA AM34	Muro de protección. Venezuela	38.502€	2038 1120 72 3002001969	5.000€
				29.640,-€

Idiazabal, 2015eko abenduaren 3a

Sin. Marian Jauregi
Gizarte Langilea